

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko AU-4 «Arana Ingurunea» hirigintza-eremuan kokatutako Arana kaleko 2-4-6-8-10-12 zenbakietako bizitegi-eraikin multzoaren bolumenak berrantolatzeko Xehetasun Azterlanaren behin betiko onespena (2026PLAN0001).

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2026ko apirilaren 14an egindako bilkuran, behin betiko onespena eman zion Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko AU-4 «Arana Ingurunea» hirigintza-eremuan kokatutako Arana kaleko 2-4-6-8-10-12 zenbakietako bizitegi-eraikin multzoaren bolumenak berrantolatzeko Xehetasun Azterlanari.

Dokumentu teknikoa Jon Ganzarain Epelde arkitektoak idatzi du, eta haren xedea da etxebizitzetan terrazak berriak jartzea eta fatxadak Sate sistemaren bidez berritzea.

Xehetasun Azterlana ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, Lur-zoruari eta Hirigintzari buruzkoak, 98. artikuluan xedatutakoaren arabera izapidetu da, eta jendaurreko informazio-epean ez da alegaziorik aurkeztu.

Behin betiko onartutako dokumentua Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistrora bidali da gordailutzeko.

Dokumentuaren eduki osoa Azpeitiko Udalaren webguneko Hirigintza atalean egongo da ikusgai (<http://www.azpeitia.eus>).

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epean.

Azpeitia, 2026ko ekainaren 5a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (3913)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Aprobación definitiva del Estudio de Detalle para la reordenación de volúmenes del conjunto edificatorio residencial situado en los números 2-4-6-8-10-12 de la calle Arana, incluido en el ámbito urbanístico AU-4 «Arana Ingurunea» del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia (2026PLAN0001).

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el día 14 de abril de 2026, acordó aprobar definitivamente el Estudio de Detalle para la reordenación de volúmenes del conjunto edificatorio residencial situado en los números 2-4-6-8-10-12 de la calle Arana, incluido en el ámbito urbanístico AU-4 «Arana Ingurunea» del Plan General de Ordenación Urbana de Azpeitia.

El documento técnico ha sido redactado por el arquitecto Jon Ganzarain Epelde y tiene por objeto la instalación de nuevas terrazas y la reforma de fachadas mediante el sistema Sate en las viviendas.

El Estudio de Detalle se ha tramitado conforme a lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, sin que durante el período de información pública se hayan presentado alegaciones.

El documento aprobado definitivamente ha sido remitido para su depósito al Registro Administrativo de Planeamiento Urbanístico.

El contenido íntegro del documento estará disponible en la sección de Urbanismo de la página web del Ayuntamiento de Azpeitia (<http://www.azpeitia.eus>).

El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa y contra el mismo podrá interponerse directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Azpeitia, a 5 de junio de 2026.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (3913)